

**BERTSOLARI TXAPELKETAREN
ONDOKO GALBAHAKETA***Lizaso***Txapelketa nagusiari kanpoaldetik begira**

Bertso doinu ezberdinak, ametsetako zinta ero bat bailitzan, dantza nahasian ari dira oraindik nire oroimenean. Bertsolarien, batez ere finalekoen, itxura, aurpegikera eta beste ñabardura asko hortxe datozkit, barruko pantaila batetan bezala, burutik baztertu ezinako eran; baina neu ere pozik, gogozko dudan zurrumbiloan murgildua bait dut izpiritua. Egingo nuke ez naizela bakarra, ezta hurrik ere!

Bertso-uholdeak gora eta gora egin du eta euskaldungoa-
rengan horrek ainako tirarik duen kultur adierazpenik nekez
aurki daiteke. Pentsamolde, adin eta marka guztietako jendea
ikus zitekeen, gazteak batipat. Euskal Herri osoa nork-zer egin-
go, txapela buruz aldatuko ote zen ez ote zen arretaz, bertsola-
rien eta epai-mahaikoen lana neurtzen begi zoliz, txapelketaren
nondik norakoa aztertzen ernai, gori-gori.

Euskarak, bertsoaren adierazpe-
nik jatorrenean, elkartu gintuen. Bes-
te zenbait ekintzatan, eta «euskal» ize-
nez beren burua bataiatzen duten
komunikabideetan ere zoritxarrez,
beti tartekatu ohi da arrotz-aidea, na-
gusitu eta gaina harrapatzeraino ba-
tzutan... Bertsolaritzan ez. Hemen
euskara ez dakienak jai du. Ez dago ez
erdararen interferentziarik, ezta ha-
rentzat zirrizturik ere. Euskararen es-
parrua da bete-betean, geure-geurea.
Horregatik zaigu hain gogoko, hain
erakargarri. Aurtengoak, baina, mar-
ka guztiak ondo dituela dirudi, bildu duen jendetzari bagagoz-
kio behintzat.



Lopategi

Zertan datza gorakada eta erakarpen horren giltza? Antola-
ketak izan dezake horretan zer-ikusirik. Eskualdez-eskualde eta
herrialdez-herrialde behetik gora antolatua izan da. Lehen kan-
poraketek, orain arte, ez zuten berotasun handi-handirik sortzen
bertsozaleengan. Lehen-kanporaketetako bertsolariak punta-
puntakoak ez zirelako usteak atzeratuko zuen, behar bada, jen-
dea. «Ba! hauek hasierako betegarri baino ez dituk; izango diagu
aukera hoberik geroago»... eta geroko pozez, lehen urratsei paso
egitea ez zen harritzekoa. Aurtengoan, ostera, bertsolari bakoit-
tzak bere herritik edo bizilekutik hurbil kantatzeko abagadunea
izan du eta herritarrez, entzule ezagunez babestua izan da hasie-
ra-hasieratik. Bakoitzak, bertsolari punta-puntakoa izan ez arren,
bere miresleak, txalojoleak hurbil-hurbil izan ditu. Txaloka eta

aupadaka girotu dituzte jaialdiak. Horrela, aurrera joanean gogortuz eta handituz doan elur-bola baten antzera, Euskal Herri mailako faseari ekiterakoan batez ere, abiada bizian goraka eta goraka hasi zen. Tolosan eta Bilbon azken aurrekoak jokatu ahalia lehia gorian, Anoetan gailurra jo eta marka guztiak hautsi arte.

Lehia aipatu dut... Horrek ere izan dezake zer-ikusirik eta izango zuen, behar bada, jende-olde ikaragarri horretan. Norgehiagoka, dema-usaina, puntuak, erdi-jolas erdi-joko horren goritasuna, eta zergatik ez aipatu: herrialdeen arteko pikea... euskaldungoaren arima pilpilean jartzeko berebizikoak dira.

Hor dugu, bada, aurtengo bertsolari txapelketa nagusia indartsu, jendez uharkan gainez egin beharrean eta azken txanpan.

Txapelketa honen ezaugarriak

Txapelketa honen ezaugarrietariko bat gazteriarengan izan duen oihartzuna izan da. Gazteen partaidetza guztiak azpimarkatu dute, bai bertsolarien aldetik eta baita entzuleen aldetik ere. Emakumezkoak ere ez dira atzera geratu. Bertsoskolen eragina zuzenean nahiz zeharka oso nabaria da. Bertsolaritza ikastola eta eskoletan sartua denez gero, andereñoak eta irakasleak bete-bete harrapatzen ditu. Eskola-eskolakoa, finalean, Jon Sarasua bakarrik izan omen da, baina txapelketa osoan zehar bertsolari-eskoletan trebatutako hainbatek ihardun dute hor; Arriola anaiak, Jose R. Etxebarria bera eta beste zenbait aipa genitzake.



Amuriza

Bertsolaritzaz bada belaunetz be-lau datorren ustetik. Egia borobil ukitu ezinekotzat hartzen dira eta esanaren esanez, horrelaxe dela eta onartu besterik ez dagoela dirudi. Orintsu arte ez ziren eztabaidagai. Horrelako «egia» borobil bat bertsolariak, bertsolari jaio egin behar duela

da, berezkotasuna. Amaren sabeletik odolean ekarri ohi den doai bat edo omen da. Eskola bidez eta ahaleginaren ahaleginez ere eskuraezina den altxorra. «Daukanak dauka, eta ez daukanak baleuka...» Oraindik orain badira hori horrelaxe dela eta kito, diotenak. Adineko zenbait bertsolarik uste horretan diraute tin-ko. Izen ospetsurik aipatzekotan, Iñaki Eizmendi «Basarri» aipatu beharko genuke besteak beste. Honek, bertsolaritzaz ahoa irekitzen duen bakoitzean, eritzi hori bota gabe nekez utziko du. Baina izen ospetsuen testigantzarik nahi izanez gero, beste aldean ere ez dira falta. Hor dugu Xalbadorren «Odolaren Mintzoa»; honela dio pasarte batetan:

«Gero hasi nintzan pentsatzen kantu eder horiek norbaitek eginak zirela. Jakin ere nuen horiek deitzen zirela pertsulariak. Hori zitzautan gauza harri-arrigarria, kasik ezin sinetsia. Nik ez bainuen holako dohainik sendi ene baitan. Xoraturik egoiten nintzan mixteriozko gizon horiek gogoan».

Eta aurreraxeago, zera gaineratzen du:

«Ez dakit baden ofizio errexik, baina etzaut iduri hau baino zailagoko aunitz baden munduan. Ez litaik ez hala! oraino ere zonbaitek, eta nihaurek haur denboran uste bezala, dohain hutsez egiten balitz».

Ustapide zenak ere eritzi berdintsua agertu zuen behin. Haren hitzak ez ditut orain aurrean, baina gutxi gorabehera, hau zioen: langintza zail eta latzetan iharduna zela bere bizitza luzean, baina bertsolaritza baino zailagorik ez zuela egundo ezagutu. Berak bertsoa egoki eta erraz egiteko iturria eta etorria zuela uste omen zuen jendeak, baina bertsoaren etorririk ez zela; berez ez zela etortzen, alegia; bertsoa hasieratik azkeneraino ekarri egin behar zela, nekez eta ondo kostata ekarri ere.

Zalantzaren arrastorik balego oraindik, uste hori hankazgora bota dutenak Xabier Amuriza eta bertsolari-eskolak izan dira. Zer da muinmuinean hauek diotena edo frogatu



Enbeita

digutena? Lehendik ere, ukitu ezineko «egia» borobil hori gorabehera, azpi-azpian zetzan susmoa: inor ikasia jaiotzen ez denez, bertsolari ere inor ez dela jaiotzen, egin egiten dela baizik. Doai batzuren jabe izatea ezinbestekoa dela? Hoba ez! Olerkari, noblelagile, pilotari nahiz futbolari izateko ere bai. Baina hortik gorakoa, lanez, ahaleginez, ekinaren ekinez lortzen da. Langintza arrunt batetarako baino gaitasun aproposagoa behar dela? Baita. Askoz ere zailagoa delako, arte bat delako, artista horrek doai batzuez hornitua izan beharko du; baina baita olerkari, pintore, musikari eta nobelagile batek ere. Gauza guztietarako behar da gaitasuna; hala ere girorik, eskolarik edo eta doai horiek lantzeko aukerarik ez bada, jai dago!



Murua

Orain eskola-eskolak dira, edo ta bertsolaritzaren ziritxo jostari horrek barrua ukitu dien gazteen bilerak. Lagunartean afaria egiteko atxakiaz, bertsolan egiteko bilerak. Era bateko nahiz besteko eskola behar-beharrezkoa da, horretarako joera duten gaztetxoek gogo zirikatu, bideratu eta elkarrekin erdi-jolas erdi-joko horretan trebatzeko.

Bigarren ezaugarri nagusia, epai-mahaia eta bere puntuak agerian emateko era izan dira. Honetaz esan beharrekoak esanik daudela dirudi, baina «zenbat buru hainbat aburu» eta eztabaidagai izango da beti ere. Epai-mahaikoei kontu hartzeko egoki da-

Zenbaitek, berezkotasun magikoaren eraginez edo, gutxietsi egiten dituzte bertsolari-eskolak. Txapelketa honetan ere, goi-goian ibili direnen artean, gazteak bai, baina eskolatik irteerako bakarra Jon Sarasua izan dela adierazi dute, kasu hau salbuespen bezala emanez. Ez Egaña, ez Euzkitze eta ez besterik. Ni ez nator horrekin bat. Eskolak era askotakoak izan daitezke: Lehen sagardotegiak, tabernak ziren, haietara jotzen bait zuten maisu handiek bertsolan egitera eta gaztetxoek ere bai haiek zer esango harretaz entzutera eta ikastera.

tor, baina entzuleek ez dute zereginik -txistuka aritzea ez bada-
haien erabakia atzerazina, behin eta betikoa bait da. Epaielen fi-
dagarritasuna ez da absolutua eta puntuak agerian eman beha-
rrak, kontu handiz eta ahalbait zehatzen jokatzera eragiten die,
hala ere... Epaiileak adituak, zuzenak eta, akatsak akats, fidagarriak
izanez gero, ez legoke, agian, puntuak agerian eman beharrik.
Lehengo eran, saioa bukatu ondoren, epai-mahaikoek puntuen
batuketa eginez gain elkarrekin eritzi-trukaketa egiteko bilera-
txoa izan ohi zuten eta horri oso ondo deritzat, puntuak eta
zenbaki hutsek ez bait dute guztia adierazten. Erizpidcak ongi
bateratzen ez diren bitartean, ez zuela merezi puntuak agerian
emateak idatzi zuen norbaitek egunkarietan eta ni ere horretan
nago. Era batera nahiz bestera, epai-mahaikoen lana oso zaila
dela ukaezina da, bertso bakoitza entzun ahala, epe labur-
laburrean, beren baitan eritzia moldatu eta zehatz-mehatz zen-
bakitan irauli behar bait dute.

Amaitu berri den txapelketa honetan bada aipatu nahi nukeen beste alderik ere. Horietako bat, puntukako iharduna da. Ondo deritzat bertsolaria era guztitako ariketaz aproban jarri nahi izateari, baina bikotea puntuka jartzea, txapelketa batetan, desegokitzen joko nuke. Epai-mahaiarentzat neurtzen ezer zailik badago, horixe bat. Ia ezina deritzat biren artean puntuka osoturiko bertsoetan bakoitzari berea ematea. Bata besteagatik gaizkiago nahiz hobeki aritzea erraz gerta daiteke, eta orduan nork igarri zeinena den akatsa nahiz meritua?



Egaña

Ofiziotan ere arrisku berbera dagoela? Bai zera! Ofiziotan bakoitzak ezartzen zaionera moldatu behar du eta txandaka, baina bertso osoa norberak osatu behar du. Badira zenbait bertsozale, berezkotasun magiko horren edo bertsolariaren etorriaren adierazgarri, puntutako iharduna hartzen dutenak. Ni neu ez

naiz eritzi horretakoa. Iharduera ari-
na, jostagarria, umorezkoa eta bizia
izan ohi da; elkarri adarra jotzeko au-
kera-aukerakoa. Tabernan, mahai ba-
ten inguruan egiteko berebizikoa eta
atsegingarria, baita jaialdietarako ere
azkenerantz entzuleen lasaigarri barre
piska bat eragiteko, baina ez txapel-
keta batetarako. Lehenengo eta bat
ezer sakonik nekez entzungo duzu
iharduera horretan. Gauza sakonak
eta serioak esatera ez da egokitzen,
gauza gazi, umoretsu eta biziak esate-
ra baizik. Egia da batzu beste batzu



Sarasua

baino hobeto moldatzen direla iharduera honetara, baina hori,
tabernan eta lagunartean puntutan aritzeko ohitura handiagoa
eta beraz, entrenamendu hobea dutelako da, asko ibilia izatea es-
katzen bait du behar den erritmoz eta bizitasunez egingo bada.
Bertsolari baten maila, era guztitako ariketaz frogatu ondoren
ikusten da; baina haren irudimena, sentimendua eta barru abe-
ratsa bakarrek gaitan adierazten da ondoen. Txirrindulari bat
erlojuz kontrako lasterketan bezala, bertsolaria gaiaren eta en-
tzuleen aurrez-aurre bere-bereaz bakarrik baliatu beharrean de-
nean, orduan agertzen da nor-nor den. Hor eman ohi du ber-
tsolariak duena. Gaia itxurazkoa bada, punta-puntako bertsola-
riek gailurra joko dute; besteek, berriz, bertso ona edo on sama-
rra egin bai, baina gehiagoko barik. Zenbait bertsolarik bakarrek
ko gaien kantatutako bertsoak ia olerki-mailakoak dira, hunki-
garriak. Entzunez batera, zirrara itzela sortzen dizue, bihotzari
astinaldia emanez, malkoak lehertzeraino kasu batzutan. Txapel-
keta, denboraren gurpilean joan eta erdi-ahaztu egiten da, baina
horrelako bertsoak ez. Horrelako bertso bikain, antologikoak
betiko grabatzen dira entzuleen gogotan. Horiek, txapelketa
jantzi eta goi mailara jasotzen dute. Hor daude lehengo bolada-
ko txapelketa haietan Ustapidek «Amari», Xalbadorrek «Hildako
emaztearen soinekoari» eta Lazkao Txikik «Egunsentiari» kantatuta-
koak.

Azken aldiko txapelketetan, bizkaitarrak nabarmendu dira, zalantzarik gabe, bertso bikain hunkigarri horietan: 1980.eko txapelketan Amurizaren «*Bihotzen min dut*», «*Gizona ez da ogiz bakarrik bizi*» eta «*Aitari*» egindako bertsoak guztion gogotan daude oraindik. 1982.ean Idiazabalen, txapelketako azken aurrekoan Lopategik «*Ez naiz ni gerraren zale, baizik bakearen alde*» gaiez kantatutako bertso zoragarriak, Durangon azken aurrekoan, Jon Enbeitak eta bederatzi puntukoan, «*Kantak dioen bezala, zer eskatzen du herriak*» gaiaz botatako hiru bertso gogoangarriak. Urte horretako finalean Amurizak «*Neguaeren atarian agertzen den txantxangorriari*» eta «*Emakumeari*» eta azkenez desentzuan Lopategik eta biekin naufragoari botatako bertso bikainak. Honelako zenbait bertso entzutean, txunditurik, benetan hunkiturik geratu naizela esateko ez dut lotsarik.



Peñagarikano

hartan, berek ohi duten bezala bertso gogoangarriak kantatzeko, han zeuden hiru bizkaitarrek ez zutela aukera handirik izango eta halaxe gertatu. Azken puntuak bertsoari bere tonua eta zera ematen dizkionez, gartzelako iharduerak txapelketari goidura eta erremate bikaina emango ziola uste genuenean, horra non egiten duen, hain zuzen ere, beherakada! Eta guztia gai pe-tral haren erruz. Eguna zoriontsu igaro ondoren, auto batek azkenean aurpegira botatzen dizun zipristin-parrastada iruditu zi-

Aurtengo txapelketan zer? Aurtengo txapelketan ere bertso on ugari entzun izan dugu, baina nire eritziz, ez da aurreko bi txapelketak bezain distiratsua eta jantzia gertatu, finala behintzat. Goizeko saioa arratsaldekoa baino hobea, hala ere. Arratsaldean, azken orduan behera egin zuen txapelketak, gartzelako gaiak ez zuelako gehiagotarako ematen. Inork galtzekorik izatekotan gai hartan, goi-mailakoek, sakon, sentimenduz eta lirikotasun-kutsuz kantatzeko joera dutenek. Laster igarri nuen gai

zaidan. Baina lehenxeago ere zerbait arrarorik ikusiak ginen. Galdera marka beltz eta handi batez seinaturik dut Peñagarikanok Lopategirekin izandako jokaera, benetan itsusia izan bait zen. Zer dela eta doinu aldaketa? Laguna urduri jartzeko ez bada, zertarako? Bertsolariak, ofiziotan kantatu baino lehen, doinuaz ados jarri ohi dira eta kasu honetan ere, jakin ahal izan dudanez, hala egin zuten. Baina Peñagarikanok ez zion Lopategik hasitako doinuari jarraitu. Honek, hamarreko nagusian doinu ezagun- ezagunez eman zion hasiera eta Peñagarikanok beste doinu batez erantzun... horrela egin zuten, hasi eta amaitu, saio osoa, bakoitzak bereari eutsiz. Beste aldetik, Lopategik erabilitako doinua menderatzen ez duen bertsolariarik ez dut uste izango denik, edozein bertsozalek ere guztiz ezaguna bait du. Hau azpi-jokoa izan zenik inork ezin du frogatu; eta frogatu ezin delako, ez dago baieztatzetik, baina susmagarri bai bazen. Epai-mahaiko batez edo beste ere, agian, balegoke zer-esanik, baina hau ere frogaezina denez gero, hobe isiltzea!

Gertakariak txapela buruz eta herrialdez aldatzera bideratu ziren. Sebastianen burura joan zen azkenez.

«Neure eritzian gauza bi ditut garbi: Batetik, ez dela erraza izango orain arteko txapelduna eta txapeldun ordezkoa dauden lekutik mugitzea, harri tinkoak baitira; eta bestetik, garaileak -dena delarik ere- ongi taxaturiko bertsoak kantatu beharko dituela zortzikote horretan nagusitzeko. Ez dago zalantzarik: Txapelaren jabe egingo dena, bertsolari bikaina da». Jose R. Etxebarriak martxoaren 23ko «EGIN»en idatzitako hitzak dira. Aurrez eritzirik ematekotan, besteok ere horrelako zerbait esango genuen, ziur asko, baina ikusiak ikusiz, zalantzak ere sortzen dira.

«Merezi edo merzi gabe
txapel ta guzti kantari»

zioen Sebastianek. Merezi baietz esan behar, inoiz goi-mailako bertsoarik egin ez arren, bertso onak egin bait zituen ia beti, eta batez ere akats nabarmenik egin gabe. Hala ere txapeldun berriak -bere etorri, erraztasun eta guzti- goidurarik ez du lortzen

eta arriskatu ere ez da egin, oraingoan behintzat. Tirrika-tarraka bazkaria prestatzen ari zen ama zaharraren gaia, Enbeitak, Lopategik nahiz Amurizak harrapatu balute. Baina jokaldi ikusgarriak egin ondoren, tantua galtzen duen pilotariaren antzera, goizeko bakarreko gaian bi bertso zoragarri kantatu eta gero, Amurizak txapa jo zuen hirugarrenean, Lopategik arratsaldean gartzelako gai petral hartan egin zuen bezala. «Txapelaren jabe egingo dena bertsolari bikaina da» zioen Jose R. Etxebarriak. Ona dena zertan esanik ere ez; zenbait iharduera motatan oso ona ere bai, baina oraingoan -nire eritziz- bertsolaririk bikainena txapelik gabe geratu dira eta txapeldunak, bere birtuteak ukaezinak izan arren, haien une batetako edo besteko makalunez baliatu behar izan du txapela jazteko.

Beste guztiak ere egoki aritu dira. Egaña eta Sarasua izan dira aurtan ezustekoa, harridura sortu dutenak, txapelketa osoan ziurtasunez eta maila on baten, gorabehera handirik gabe, ihardun dutelako. Bi gazte hauek, txapelketako iharduera mota guztietara egoki moldatuz gainera, euskara ere ongi erabili izan dute. Behin Egañak «antaño» hitza sartu zuen oin bezala eta honelako erdal hitz nabarmenekin kontuz, itsusi ematen bait du. Bertso ederrik ere kantatu zuten batak nahiz besteak. Artxandatik Bilbori Egañak kantatutakoak eta Sarasuak zahartzaroan zapata lotzeko gauza ez zen bere buruari kantatutakoak lekuko. Peñagarikano gorabeheratsu ikusi genuen. Zenbait kasutan arriskatuz lortu zuen finalerako txartela. Honen doirik onena, ustegabeko zenbait ateralditan erakutsi zuen txispa berezia; baina lehenago esan bezala, gorabeherak izan ohi ditu eta hizkuntza ez du txukun erabiltzen. Ez da horretan bakarra izan hura; Muriak eta Sebastian Lizasok ere jo izan dute noizbehinka badaezpadako errekurtsio horietara. Horrelakoetan da ezagun nor dagoen ongi alfabetatua eta nor ez. Euzkitzek, Egañak, Amurizak, Lopategik eta Enbeitak euskara maisuki erabiltzen dute. Gehiago ere izango ziren, baina idazten ari naizen une honetan gogo-

ratzen ditudan eta badaezpadakotzat ditudanak hauek dira: «dia» «dira»ren ordez, «bela» «berehala»ren ordez, «ber» edo «biar» silaba bakarrez «behar» bi silabatakoaren lekuan, «-ea» eta «-ia» bukaeretako hitzen nahasketa errimak egiterakoan. Lehengo bertsolari zaharrek honelako nahasterik ez zutela sekula egiten esan zidan oraingo bertsolari handi eta euskara nraisuki erabiltzen duen batek; eta halaxe da. Txirritak eta, «-e»z bukatutako hitzak «-ia» egiten dituzte beti, adibidez: «bidia», «legia» etab., baina errimak egiterakoan «-i»z bukatutakoekin nahastatu gabe. Idatziz hauek, «-iya» ematen dira. Adibidez, «begiya», «biziya»... Beraz, haiek bertso bereko oinetan ez dizue jarriko, «aurrian» eta «base-rriyan». «-e»z bukatutakoak elkarrekin eta «-i»z bukatutakoak ere elkarrekin, baina hauek haiekin nahastatu gabe. Akats hau, gaur egun oso hedatua dago bertsolarien artean -ez gero alfabetatuen artean-; ez bapateko bertsoetan bakarrik, baita bertso jarraietan ere. Xalbador zenak, hala ere, poto egitea baino akats larriago-tzat jotzen zuen. Poto egitea, akats garbia zela dio eta entzuleak erraz-erraz konturatzen direla, baina beste akats hura, maltzurragoa eta jendearen aurrean gaizki geratu gabe egiten dena omen da, euskara galtzaile ateratzen delarik.

Txapelketako bertsolariengana berriro itzuliz, finalaren ate-atean geratu zirenetatik, Gorrotxategi eta Euzkitze ezin aipatu gabe utzi. Euzkitze benetan kontutan hartzekoa izango da ondorengo urteetan, Sarasua, Egaña eta besteren batzuekin batera. Gorrotxategi, berriz, Lazkano bezala, edonork daki bertsolari handia dela. Mendizabal, Narbaiza eta Telleria egoki aritu ziren, baina aurreko txapeldun eta txapeldun ordezkarekin seikotea osotzeko galbahe estua erabili behar eta guztientzat tokirik ez.

Bertsorik onenak

Azken aurrekoa eta finala bakarrik kontutan izanik, alerik onentxuenak bildu nahi nituzke hemen. Neure eritziaren galba-hetik pasatu ditut zenbait bertso eta aukeraketa honen erantzule

bakarra neu naiz:

A. Egañak, Artxandatik Bilbora begira zaude gaiari:

Begira nago jarria beraz
zeru erdiik mundura
Bilbo aldeak sortu du nere
barrunbe hontan araura
kez estalia ikusitzen det
hiri haundiren modura
hori da zatar itsura
zalantzan nago oraindik ere
petrolio den hura
hurbildu eta konturatu naiz
dala Nerbioiko ura.

Beraz gizonak jarriak daude
kutsaduraren eskelabo
Bilbo aldeko biztanle denak
marxa honetan akabo
kutsadurak hor ba omen dauzka
nik ez dakit zenbat grado
garbia gendun lenago
orain zikina nagusitu da
piskana eta gehiago
erremedioa ipini dezan
Udaletxea non dago?

Alper-alperrik hasi ziraden
arren, arren eta arren
ibai zikinak goikaldetikan
zerikeria zekarren
gure hirian bizi beharko
al denik eta ondoen
badaukaqu nahiko kemen
nonbait egin gura balute
lana sobra dago hemen
beraz al dala bete dezagun
guztiok ito baino lehen.

J. Sarasuak, «urte batzuk badituzu eta bakarrik bizi zara eta gaur konturatzen zara oinetakoak lotzeko ere ez zarela gauza» gaiari botatako 2. bertsoa.

Gazte aroan eduki nuen
besteak hainbat arazo
baina hoiel bakar-bakarrik
nahi izan nien eraso
gaur zapatilak lotu ezinik
aurrean daukat frakaso
maitasunikan ez nuen eman da
maitasunik ez det jaso.

Euzkitzek, gai berari botatako 3a:

*Zahartzaroa bilakatu zait
azken orduko ezbehar
hori askoren gaitza da eta
zeriarako egin negar
lehen gaztea nuen gorputza
orain jarri zait hiltzear
nik laprastaka jarraituko dut
heriotz bidean zehar
lan egin duen gizonak ez du
hiltzeko lotsarik behar.*

X. Amurizak, «Askoren eritiz aurrerapen handiak egin ditu gizarteak. Zer diozu zuk» gaiez kantatuko lehen bi bertsoak:

*Historiaren haritz zar horri
behar diot orain tira
aurrerapenei begira
askori horrek begietara
ekartzen dio dirdira (bis)
pentsatzen nago lengo ibaiak
len bezain garbi balira
zer ur freskoen segida
len bezalaxe gaur ere, jaunak,
len bezala hiltzen dira
eta tankera berdin-berdina
daramate hilobira (bis)*

*Lengo mendetan piztutzen zuten
mendi goietan zuzia
tximista ere jausia
igual morroia biltzen zen bertan
eta berdin nagusia (bis)
aurrerapenik ez dut ukatzen
baina gauza itsusia
sortzen bait dago hasia
zoriona ere non ote dagon
hori da gaurko auzia
zorion hori galdu ezkerro
galduta dago guzia (bis)*

Bigarren bertso hau, bikain-bikaina da eta gaiari bete-betean dagokiona.

Gorrotxategik, «Zeri diozu beldura?» gaiari botatako azken bertsoa:

*Beste aldean lagun batzuek
egongo dira entzuten
ai nik bildurra diodan hori
lenagotik pasa zuten
berriro ere bilduko gera
bestaldean egun haten
ta zuek hemen jarrai zazute
abertzaleak izaten.*

Ofiziotako bertso bakar bat jasoko dut hemen. Hala ere aipagarrienetarikoak hauek iruditu zitzaizkidan: Enbeitak eta Murrak, Bilbon, batak hil-kanpaiari eta besteak jaiotzak, ezkontzak etab. iragartzen zituen kanpai alaiari kantatutakoak; Enbeitak berak, soroak bedeinkatzera zetorren apaizak Sarasua etxekandeari kantatutakoak; Amurizak eta Lopategik, bata astoa eta bestea ardotan Nafarroara zihoan astoduna ofizioan kantatutakoak; Murrak frailea eta Lizaso etxeko jauna ofiziokoak. Lizasoren lehenengo bertsoa jarriko dugu:

*Zakurra gertu neukan
etxeko atian
eta fraile zaryari
hasi atakian
hura hantxen zegoen
len pake-pakian
zu zertara zentozen
nunbait bazekian
oilo lapurretara
eske aitzakian.*

Bertso bizi-bizia eta erasokorra; jarritako ofizioari ezin hobeto zegokiona. Akatsik ateratzekotan, gorago aipatutakoa aipatu behar. Lehenengo hiru oinak ongi berdintzen dira elkarrekin, baita azkenengo biak ere; baina lehenengo hirurak ez dira azkenengo biekin berdintzekoak; atian, atakian, pakian (beraz, atean, atakean, pakean) ≠ bazekian, aitzakian (azkenengo hauek, bertsolari zaharrek *bezaziyan*, *aitzakiyan* egingo zituzten, haiekin inoiz nahastatu gabe). Xalbadorren eritzia gogorregia izan daiteke, agian, poto egitea baino huts larriagotzat emanaz; baina nolana ere, edozein epailek txapelketa batetan kontutan izan beharrekoa.

Lizasok, etxetik ihes eginik, Parisen eskale aurkitzen duen
anaiari egindako hiru bertsoak:

Ara anaia zeuk egin zendun
ustez gustoko aukera
eta etxetik irten zenduen
zuk mundua ikustera
Parisen zaude ematen dizut
eskale baten tankera
berriz etxera huaten orain
lotsatu egiten al zera?

Ez du kalterik hobean bila
mundurik mundu joaliak
harrokeriak ekartzen ditu
oztopo eta kaltetak
gizona ez du inoiz bajatzen
galtzen ere jakitiak
zabalik daude aman besoak
eta etxeko atiak.

Paris aldean daramazkizu
egun gogor ta lizunak
orain aparte garai bateko
adiskide ta lagunak
zoaz etxera jan eta edan
jantzi erropa txukunak
hori ta geio barkatuko du
bizia eman zizunak.

Nire eritziz, euskaran akats txiki batzuk izan arren, Lizasok
bota zituen bertsoarik ederrenak hauek izan ziren.

Egañaren bandoa:

Tarrapatan bandoa joaz
beharko degu hitzegin
gure Udalak orain artean
ez du askorik hutsegin
natura zaintzen jokatu behar
dugu denok zintzo ta sin
horretan gogoz alegin (bis)
gure herria piska piskana
berdeago izan dedin,
lorategiak zainduko dira
eta berri gehio egin (bis).

Esana ongi bete zazute
ta horrenbestean tira!
gure agindu egoki hoiak
papelerara ez tira,
ea usoak bueltatzen diran
lehengo hiri eztira,
ez da gehiegi guztira, (bis)
sano daudenak zaindu ta eri
daudenetaz izan mira,
animaliak zain itzazue
gure lagunak bait dira. (bis)

Ez dakit ziur gure hizkuntza
ote dagon horren lerdin,
gure kaletan erdera degu
jaun eta jabe nabarmen,
gure ustetan geure hizkuntzak
nagusi behar du hemen,
ez ote da nahiko krimen, (bis)
damu guztiak alferrik dira
garaia pasa ondoren,
ikasietxetan «D» eredu
sar ezazue lenbaitlen. (bis)

Hirugarren bertso honi azpimarragarria deritzat, batez ere azken puntuari, euskaltzaleon kezka bete-bete erantzuten diolako.

Ehun urte bete dituen aitona bati Peñagarrikanok bederatzia puntukoan botatako lehenengoa:

*Ondik ez da agortu
zure iturria
itxaropena ere
ez da urria
garai baten sasoi
ikaragarria
orain buru makurka
aiton elbarria
len zendun irria
orain izurria
kezka ta larria
ta istilu gorria
zartzea hain da gauza
penagarria. (bis)*

Eta azkenerako utzi ditut, nire eritziz, txapelketa honetako bertso onenak. Sentimenduz eta fintasunez beterikoak, benetan gogoangarriak: J. Enbeitak, etxetik ihes egin eta Parisen eskale aurkitzen duen anaiari zortzi puntukoan botatakoak:

*Igesi zendun anai maitea
zurretat izan da hau kaltea
juan zinandik zure sendia
dago malkotan betea
zu horrela ikustea
benetan dugu tristea
nahi nizuke esatea
hobea dela anai artean
beti esku ematea
zatoz nerekin berriz etxera
zabalik dago atea.*

*Izango zendun zuk hainbatekin
sinesten dizut buru ta begi
baina orduko aizu ezina
betirako galdu bedi
ez dakit zendun zilegi
horrela ezin da segi
ta atsekabe gehiegi
gaztea zara ta bizia
etzazu hola eskegi
hemen naukazu biok batera
emango dugu aurpegi.*

Destinoaren ezten zorrotza
hain luurbila ta horren arrotza
sarri nagusi izan nahi eta
bilatzen dugu morrontza
igestearen mingotza
gehienetan dugu hotza
baina arren ez zaituz lotsa
zure etxean maite zaitugu
egiten dizut aitortza
etorri zaitte lertu orduko
zure amaren bihotza.

J. Lopategik, zabortegira erropa zaharrak bota eta haiek hartzen ikusi zuen behartsuari bederatzai puntukoan botatako bertso bikainak:

Erropa zar hoiekin
etxean nengoan
beti jantzi ohi naiz
al denik ondoan
akaso bota ditut
behar zen baino len
baina ondorioa
horra hor nabarmen
triste nago zeren
aitona zar horren
jokoa gaur zer den
ikusi ondoren,
miseria gehiegi
daukaugu hemen. (bis)

Besteok sarri juergan
egun eta gaba,
eta zuretzat berriz
hainbeste traba,
nere etxe ondoan
jo duzu aldaba,
hau da nere bihotzak
dakarren alqara
ta hori non hara
nere abiada,
justizirik bada,
zu hola nola laga?
nere traje onenez
jantzikoz zara. (bis)

Triste ikusten zaitut
aitona izanik,
gaitzki hartu zaituzte
egia esanik,
zer eman nezake nik
zuretzat nigandik,
ez nuen uste kasu
hori inon zantzi
har zazu dohainik
ez eman ordainik
bihotza jadanik
lertua daukat nik
erropa gehiago ere
badut oraindik. (bis)

Luis Baraiazarra